

10/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 21ekoa, Uribeko Erankunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen urriaren 5eko 378/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESiko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 16ko EHAA 250. zk. eta 2021eko abenduaren 23ko BOE 306 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko urtarrilaren 14an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribeko ESiko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Uribeko ESiko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Uribeko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Urduliz, 2022ko urtarrilaren 21a.



Osakidetza
URIBE ESI
OSI-URIBE
GERENTZIA
GERENCIA

Uribeko ESiko zuzendari-gerentea,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY

I. ERANSKINA

**URIBEKO ESI-KO BARNE MEDIKUNTZAKO ATAL SANITARIOKO BURUA
IZENeko LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- JOSÉ GABRIEL ERDOZÁIN CASTIELLA

Baztertuak:

- BAT ERE EZ

Baztertzeako arrazoiak:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.